

MUSIKA ETA KONTZEPTUA

Tailerra-Mintegia Arteleku-Audiolab, Donostia, 2010eko uztailaren 26tik 30era

Matthieu Saladin

MARCHE FUNEBRE
FUNÉRAILLES D'UN GRAND HOMME SOURD

Lento rigolando

t.s.v.p.

Egitarauerako oharrak:

Entzuteko bakarrik ote da musika? Ez ote du, baita ere, entzutean gogoeta egitea eskatzen?

Musika ez baita, bakarrik, soinuekin jolas egiteko modu bat, baizik eta baita soinuen eta isiluneen bidez galderak egiteko modu bat ere. Aste honetan barrena saiatuko gara, tailerretan eztabaidak sortuz, obrak aztertuz eta musika entzunez eta joz, galderak egiten musikaren eta kontzeptuaren arteko harremani buruz, sakonki aztertu nahi baitugu, eragimen kritikoko gogoetak bultzatuko ditugulakoan, zer dioskun musikak, bere forma ugariekin, musikari buruz, bere historiari buruz, bere hedadura sozial eta estetikoari buruz, eta, aldi berean, bera bizi den gizarteari buruz. Bidenabar tailer honen bidez kontzeptuen erabilerak, praktikan musikariari nahiz martxan jartzen duen entzuleari zuzendutako galdera modura ulertu ditzazkegun soinuak formekin esperimendatzeko duen gaitasuna kontutan hartzeko aukera eskainiko du.

Mintegiak aste bat iraungo du (bost egun). Egun bakoitzean gai ezberdin bat aztertuko da (taldearen lan dinamikaren, interesen eta tailerraren zehar ager daitezken ideien arabera egitaraua aldatzeko aukerarekin):

- Lehen eguna: Musika eta hizkuntza
- Bigarren eguna: Ideia eta musika
- Hirugarren eguna: Lekua
- Laugarren eguna: Grabatzea eta grabaketa
- Bosgarren eguna: Entzulegoa eta entzumena

Gai hauek, bidean gurutzatzen diren beste gaiekin erlazionatuko dira, halanola: arauak, murrizketak eta jokua, zoria eta prozesua, umorea eta ironia, arte kontzeptuala eta soinu artea, teknika eta teknologia, ikuspegi politikoak...

Egun bakoitza bi momentu edo saio ezberdinetan banatuko da:

Goizez (3 ordu, 11:00-14:00): Eguneko gaiari buruzko talde eztabaida; gaiarekin zerikusia duten lan garaikide eta historikoen aurkezpenak eta iruzkinak (grabaketa, partitura, performance, bideo, ikusizko lan eta audio grabaketen entzunaldiak); Zenbait lan zehatzen entzunaldia eta azterketa parte hartzaileen artean. Orokorrean goizeko saioek izaera teorikoagoa izango dute eta eguneko gaia ikuspegi historikotik eta estetikutik aztertzea izango dute helburu.

Arratsaldez (3 ordu, 16:30-19:30): Eguneko gaia praktikara eramateko saioa. Bakarka nahiz taldean lan egiteko proposamenak luzatuko zaizkie parte hartzaileei, ondotik taldean aipatu eta eztabaidatuko direnak. Proposamenak ariketak izan daitezke, baita partiturak, ideiak edo egitasmoak ere. Parte hartzaileek pieza, performance, partitura, proiektu, soinu instalazio, grabaketa eta bestelako lanak interpretatu ahal izango dituzte. Aste osoan zehar arratsaldero bi kontzertu antolatu ahal izango dira, jendaurrean aurkeztu eta antzertu ahal izango direnak.

Materiala: Goizeko saioetan bereziki beharrezkoak izango dira idazteko tresnak. Papera eta boligrafoa erabilgarriak izan daitezke ideia, proiektu, partitura edo zirriborroak arin idazteko. Parte hartzaile bakoitzak bere ariketak praktikara eramateko beharrezkoak diren soinuak materialak ekarri beharko ditu. Artelekuk lanerako tresna zenbait jarriko ditu parte hartzaileen eskura (grabagailuak, kamarak, mikrofonoak, bozgorailuak, mixerrak, fotokopiagailua...). Goizeko saioaren eta arratsaldekoaren arteko tartek erabilgarriak izango dira arratsaldeko saiorako erabilgarriak izango diren materialak pentsatu, erabaki eta prestatzeko.

Gai ezberdinen aurkezpena:

- **Musika eta hizkuntza:** Lehen gai honek hizkuntzaren eta soinuaren nahiz musikaren esperientziaren arteko erlazioak, baita pentsamenduaren, komunikazioaren eta entzumenaren artekoak zalantzan jartzeko aukera eskainiko digu. Hizkuntza eta pentsamendua musikarenganako hurbilketa kontzeptualaren bi gai garrantzitsu dira, eta tailer osoan zehar noiznahi agertuko dira. Lehen eguna beraz “musika eta kontzeptuaren” arteko erlazioaren zenbait oinarritzko aspektu zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko baliatuko dugu.
- **Idea eta musika:** Lehenbiziko gaiarekin jarraituz, bigarren honek ideien eta soinu nahiz musikaren sorkuntzaren arteko erlazioak izango ditu hizpide. Hortarako sorkuntza ekintzan ideiek duten paper erabakigarrian, proposamen bakoitzean soinuak izan dezaken presentzian edo gabezian eta lana sortzeko erabilitako baliabideetan jarriko dugu arreta. Musikarenganako hurbilketa kontzeptualean, ideia emaitza bera edo honek sortutako soinuak eta musikak bezain garrantzitsuak (edo gehiago) izan daiteke. Zenbait murrizketa, axioma edo arau aukeratzeak esperimentera eta erreflexiora eramane gaitzake. Aldiberean, musikak bere burua zalantzan jartzeko dituen moduak, musikaren fetitxe izaera, bere materialak, hauek gizartearekin dituzten erlazioak, eta musikaz, arteaz eta bizitzaz ditugun ulermenak aztertuko ditugu.
- **Lekua:** “Lekuaren” ideia bi zentzutan ulertzen saiatuko gara:
 - 1) “Lekua” lana sortu, jo, erakutsi eta entzuteko toki bezala.
 - 2) “Lekua” lan bakoitzak bere tokia topatzen duen kulturgune, erakunde edo gizarte bezala.
 Ariketa honen bidez soinuak proposamen batek durundatzen duen espazioarekin sortzen dituen erlazioetan sakontzeko eta lekua bera zalantzan edo agerian jartzeko izan dezaken gaitasuna ikertuko ditugu.
- **Grabatzea eta grabaketa:** Atal honetan grabatzearen praktika artelanaren baliabide bezala ulerturik eta grabaketaren aukera artistikoak izango ditugu hizpide. Grabaketa (binilotik Cdra, baita egungo internet bidezko argitalpenetan ere) ez da soilik soinuak erregistroak banatzeko beharrezko euskarria. Grabaketa bere hortan (eta bere berezitasunekin) helburu gisara ulertzea erabilgarria izan daiteke. Modu honetan “grabaketa” bera, berdin medio, artxibo edo salgai bezala, zalantzan

jarriko dugu baita grabaketekin sortzen ditugun loturak eta hauek entzuteko moduak ere, nahitaez gure musikaren esperientziaren ezinbesteko zatia osatzen baitute. Aldiberean teknologiarekin dugun harremana, egitasmo kontzeptual batean grabaketak izan dezaken interesa, bere potentziala eta bere mugak modu zabalean pentsatuko ditugu.

- **Entzulegoa eta entzumena:** Azken gai honen bidez, aste osoan zehar nonahi eta etengabe agertuko zaigun elementu batean jarriko dugu arreta. Musikarenganako hurbilketa kontzeptualak entzulea eta entzulegoa izaten ditu maiz bere egitasmoen jomuga. Beraz, musikak entzulegoaren eta entzumenaren artean sortzen dituen erlazioak zalantzan jartzen saiatuko gara. Zer nolako jarrerak eta erlazioak bilatzen eta sortzen dituzte halako hurbilketek entzuleen artean? Zein da entzulegoak soinuazko proposamenaren atzean dauden kontzeptuak ulertzearen garrantzia?

Bibliografia (aukeraketa):

Theodor W. Adorno, *On the Fetish Character in Music and the Regression of Listening*, in *The Culture Industry. Selected Essays on Mass Culture*, Routledge, 1991.

Alexander Alberro and Blake Stimson (ed), *Conceptual Art: a Critical Anthology*, MIT Press, 1999.

Alexander Alberro and Sabeth Buchmann, *Art after Conceptual Art*, MIT Press, 2006.

Michael Asher, *Writings 1973-1983 on Works 1969-1979*, Benjamin H.D. Buchloh (ed), The Press of the Nova Scotia College of Art and Design, The Museum of Contemporary Art Los Angeles, 1983.

Mel Bochner, *Solar System & Rest Rooms: Writings and Interviews, 1965-2006*, MIT Press, 2008.

George Brecht, *Chance-Imagery*, Something Else Press, 1966, <http://www.ubu.com/historical/gb/index.html>

John Cage, *Silence: Lectures and Writings*, Wesleyan, 1961.

Cornelius Cardew (ed.), *Scratch Music*, Latimer New Dimensions, 1972.

Craig Douglas Dworkin (ed), *Anthology of Conceptual Writing*, <http://www.ubu.com/concept/>

Henry Flynt, *Essay: Concept Art*, 1961, <http://www.henryflynt.org/aesthetics/conart.html>

Tony Godfrey, *Conceptual Art (Art and Ideas)*, Phaidon Press, 1998.

Tom Johnson, *Self-Similar Melodies*, Editions 75, 1996.

Douglas Kahn, *Noise, Water, Meat: A History of Sound in the Arts*, MIT Press, 2001.

Brandon Labelle, *Background Noise: Perspectives on Sound Art*, Continuum, 2006.

Alan Licht, *Sound Art. Beyond Music, Between Categories*, Rizzoli, 2007.

Alvin Lucier, *Reflections. Interview, Scores, Writings 1965-1994*, MusikTexte, 2005.

Michael Nyman, *Experimental Music: Cage and Beyond*, Cambridge University Press, 1999.

Brian O'Doherty, *Inside the White Cube: The Ideology of the Gallery Space*, University of California Press, 2000.

Jacques Rancière, *The Emancipated Spectator*, Verso, 2009.

James Saunders (ed), *The Ashgate Research Companion to Experimental Music*, Ashgate, 2009.

The Record as Artwork: From Futurism to Conceptual Art, Catalogue, 1977.

Christian Wolff, *Cues. Writings & Conversations*, MusikTexte, 1998.

Zaj, *A Zaj Sampler*, Something Else Press, 1967, <http://www.ubu.com/historical/zaj/index.html>

Biografia:

Matthieu Saladin musikaria eta ikerlaria da. Bere konposizioak musikarenganako hurbilketa kontzeptual bat dira. Forma musikalen historiaz eta musikaren eta gizartearen arteko harremanaz hausnartu du.. Estetikako Doktoretza du egina Parisko 1 Unibertsitatean (Panthéon-Sorbonne), musika esperimentalaren estetikari buruzko ikerketa batekin. Musiken historia eta estetikako (XX. mendea) irakasle-irakurlea da Lilleko Unibertsitatean (FLSH), eta musika herrikoei buruzko Volume! aldizkari akademikoaren koeditorea da.

Harremanetarako:

Arteleku

Kristobaldegi 14, Loiola auzoa
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (Gipuzkoa)
T: +34 943 45 36 62 F: +34 943 46 22 56
arteleku@gipuzkoa.net

Mapa: http://maps.google.com/maps?f=q&source=s_q&hl=en&geocode=&q=arteleku,+spain&sll=37.0625,-95.677068&sspn=38.638819,64.775391&ie=UTF8&hq=arteleku,+spain&hnear=&radius=15000&ll=43.319683,-1.959&spn=0.138878,0.253029&t=h&z=12&iwloc=A